

Bizkaldatz Txikia

**IX. Haur eta Gazteen
Literatura Saria**

2022-2023

* Oinarriak barrualdean

NOMADA

Aiala Garabieta Oribe

Azaleko irudia: Iñaki Landa

© Aiala Garabieta Oribe, 2022

© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia

Antolatzailea: Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Azala: Iñaki Landa

Diseinua: Alex Oviedo

Lehenengo edizioa: 2022ko urria

LG BI 1408-2022

www.bizkaia.eus/argitalpenak

Aiala Garabieta Oribe

NOMADA

Azala:

Iñaki Landa



Beti amestu dut hegan egitearekin, eta gaur, azkenengoz, aluminiozko txori baten barruan bada ere, nire ametsa bete dut. Nik amaren eskua estutu beharrean, berak nire estutu du, beldur dielako hegazkinei. Ni, ordea, pozarren nago hiru arrazoi desberdinengatik. Lehena, grabitateari muzin eginez, hodeiak zeharkatu ditudalako. Bigarrena, aita ikusiko dudalako bi hilabete elkar ikusi gabe eman ostean. Hirugarrena, eta garrantzitsuena, Saharara joango naizelako!

Aita bertokoa da, eta amak, han jaiotzen ez bazen ere, hango sus-traiak ditu ere bai, izan ere, bertan sortu zen orain dela urte mor-doa aitona. Aita Marokoko ekialdeko Merzouga herrikoa dela

esatear nengoen, baina berak beti esaten duen legez, “Ni, Saharako dunen artean jaio den edonor bezala, nomada naiz, ez hangoa ez hemengoa, baina beti basamortukoa”. Amaziga da, Afrikako iparraldean bizi diren tribu horietako batekoa, berbere izenagatik ezagunagoa denekoa. Bere ama-hizkuntza, nirea euskara den bezala, amazigera da. Aitak behin azaldu zidan hizkuntzak aztertzen dituzten zientzialari batzuek, hizkuntzalariek, euskara eta amazigeraren arteko loturak aurkitu zituztela.

Aita eta osaba dromedario artean jaio ziren. Zoritzarrez, ni baino gazteagoak zirenean, gurasoak hil egin zitzaizkien. Aitak ez dit gauza gehiegirik kontatu haien gainean, mingarriegia egiten zaiolakoan nago. Behin, trastelekuan gordetako kutxa batzuetan kuxkuxeatzen ari nintzela, amamaren argazki batekin egin nuen topo, eta haren antza dudala jabetu nintzen.

Gurasoak hildakoan, tribukoek hezi eta hazi zituzten aita eta osaba, eta familia handi bat osatu zuten. Nomadak ziren, ez zu-

ten bizileku finkorik, uraren eta janariaren arabera mugitzen ziren toki batetik bestera abereekin. Urteak aurrera egin ahala, ura ohiko lekuetatik desagertuz joan zen, eta gero eta zailagoa zen abereentzako jakiak topatzea. Gainera, turismoa Saharako mugetaraino hedatu zen. Hortaz, tribuko kide askok bizimodu nomadari utzi eta Merzougara joan ziren bizitzera, aita eta osaba barne.

Kanpoan topatu zutena, aitzitik, ez zen espero bezain ona. Horregatik, bizi-maila duinago baten bila aita Euskal Herrira joan zen. Bertan ama ezagutu zuen eta maitasunagatik han geratu arren, sorlekura itzuli da hotel bat irekitzera anaiarekin, hiru hamarkadaz aurretzen ibili ondoren. Pandemia garaian irekitzeko zeuden, baina umeok ikastola eta parke gabe utzi gintuen birus arrotz batek aitaren hotela itxirik jarraitzera behartu zuen. Gaur, bi urteren ostean, “Eguzki Resort”aren ate-irekitzea izango da eta hori ospatzeko festa izugarria antolatu dute.

Hainbestekoa da betetzen nauen zirrarara non ez naizen kontu-

ratu lur hartu duela hegazkinak. Marrakexen ile-lehorgailu erral-
doi batek aire beroa botatzen duela dirudi. Mugikorra atera eta
amak 47°C daudela esan dit. Euskadin ez dago halakorik! Egia
da ere, horregatik ditugula hain mendi berdeak eta ez Saharako
dunak.

Aita aireportuan zain egon da gure izenak idatzita dituen kar-
teltxo batekin, famatuak izango bagina bezala! Makina bat muxu
ostean, hotelera eraman gaitu. Hara ailegatzeraoan egiaztatu dut
argazkietan baino askoz hobea dela hotela. Adobezko eraikina
ederra da benetan, eta are ederragoa, atzealdean hareazko dunen
artean oasia balira legez dauden igerilekua eta terraza. Bertan
dago osaba, faroltxoak eskegitzen eskailera batean igota.

—Osaba! —oihu egin diot.

PLAUST! Ez du biratzeko astirik ere izan, ikararen eraginez ige-
rilekura erori delako.

—Baina Meddur! —errieta egin dit, arropa bustiei erreparatuz.— Beno, eskertu beharko nizuke bainua, bero itogarri honekin ez zait txarto etorri freskatzea. Kar-kar !

Eskerrak gizon umoretsua denez ez duela gaizki hartu. Sikatzen lagundu diogu, eta gonbidatuak heldu aurretik azken ukituak eman dizkiogu festaren prestakuntzari.

Eguzkia dunen atzetik ezkutatu denean hasi da patioa eskuetan opariak dakartzaten pertsona ezagunez betetzen. Han bildu dira herrikoak, urruneko senideak eta aitaren zein osabaren lagunak. Ordubete baino gehiago eman du aitak ni leku batetik bestera pasatzen, irabazi berri duen trofeoa izango banintz bezala, guztiek bere “mutil kuttuna” ezagutu dezaten. Bat-batean, hamaikagarren lehengusua ezagutzear nengoela, tunika luzez jantzitako gizon-emakume turbantedunak agertu dira. Haien azala eguzkiagatik belztua dago, eta begi argiak dituzte. Aitari alkandoratik tira egin diot, heldu berriei errepara diezaien. Haiek ikusi bezain laster,

korriketan abiatu da guztiak besarkatzera, amazigeraz zoriontasunezko eta maitasunezko hitzak eskaintzen dizkien bitartean.

—Meddur! Meddur! Zatoz hona, begiratu nortzuk etorri diren. Basamortuko tribukideak dira, familia!

Banan-banan aurkeztu dizkit: bere garaiko helduak eta umeak, orain adindunak eta helduak direnak, eta nire adineko gazte-txoak, urte batzuk geroago jaio zirenak. Oraingoan ez nau gogaitu hainbeste pertsonaren eskuak estutzeak eta nire izena mila bider errepikatzeak, haiek bazekitelako izenaren esanahia, “bizirik dagoena”. Hain da liluragarria darien misterio kutsua... Denek tratatu naute haien familiakoa izango banintz bezala. Baina, “elkarren senide” bagara, nolatan ez dut haiek hitzak ahoskatzeko duten modu hori, Saharako haizeak hitz egingo balu bezala? Zergatik ez ditut haien begi argi eta sakonak? Aitarengan oraindik nabari dira desertuko bizimoduaren arrastoak, hirian emandako urteek leundu dituzten arren. Izango al dut nik ere nomada espiritua?

Amamak baldin bazuen eta haren antzekoa banaiz, litekeena da nik ere izatea.

Ahots higatu batek ezustean eten ditu nire pentsamenduak.

—Seme, lagunduko al didazu jausi zaidan gauza hori hartzen, faborez? Orain dela denbora gehiegi galdu nuela makurtzeko zure bizitasuna.

Gerturatu natzaionean oso emakume amazig zaharra dela ikusi dut. Aurpegia baino, papirozko azal zimeldua duela dirudi, eta kolore alaiez apaindutako *jellaba* tunika darama soinean, ile-matazaren zuritasuna orekatu nahian edo. Atsoaren atzamarrak seinalatzen didan objektua hartzeko makurtu naiz, faroltxo dilindarien argipean zer den ezin jakinik. Ahuntz-larraz egindako poltsatxo bat da. Eman diot eskura. Jakin-minak jota nago, baina ez naiz ezer galdetzera ausartu. Hala ere, nire pentsamenduak irakurri dituela ematen du, hau esan didalako:

—*Ism inu Tayri*, nire izena Tayri da eta hauek amuleto berberak dira, behar duzun guztietan laguntzen dizutenak, tribuan belaunaldiz belaunaldi igaro direnak. Zeinek bere botere magikoa du —kontatu dit nire begien aurrean poltsatik koloretako hiru bitxi ateraz.— Zure amama nire lagun mina zenez, zuri oparituko dizut zinginarrietako bat, zaindu ondo!

Berdea luzatu dit. Nire amuletoaren boterea zein den galdetzera nindoanean, haatik, aitak mikrofonoa hartu du eta hizketan hasi da.

—Jaun-andreok, zinez espero dugu festaz gozatzen aritzea, sorpresatxo bat baitaukagu zuentzat. Dromedarioak prestatu ditugu desertutik izar azpian paseo bat emateko!

Zeinen ideia ona, aitak eduki duena! Txalo-zaparradaren ostean, amuletoa ahazturik, gamelurik onena hartzera abiatu naiz. Gonbidatuok, berberek barne, trostan abiatu gara Duna Handira.

Ilberri da eta izarren dirdira ederki ikus daiteke. Zerua oskarbi dago, Bilbon ez bezala, non hiriko argiek zerua kutsatzen duten.

Jai-giroak paseoan ere iraun du, eta barre-algarek bete dute gaua. Di-da heldu gara dunetara; geldialdia egin dugu hoteletik ekarritako menda-tea eta almendra-pastak hartzera. Marokon nik asko maite dudan esaera zahar bat dute tearen gainean, horrela dioena: “lehenengo kikarakada bizitza bezain garratza da; bigarrena, amodioa bezain goxoa; eta hirugarrena , heriotza bezain leuna”.

Oraindik bigarren kikarakada goxoa edaten ari garela, dromedarioak urduritzen hasi dira, eta berbereek hareak-ekaitza datorrela adierazi dute. Basamortuan bizitza osoa eman ostea, naturaren seinaleak ulertu egiten dituzte. Goizeko hegazkinean ez bezala, oraingo honetan beldurtu egin naiz, eta amaren eskuari helduta, animaliangana abiatu gara hotelera lehenbailehen heltzeko. Konkorren gainera igo gara ahalik eta azkarren.

Haize-boladak gero eta bortitzagoak dira. Harea harropuzten hasi da, eta zeruaren nahiz lurraren hotsa hain burrunbatsua da non nekez entzuten ditut besteen hitzak. Konturatu aurretik, harea-ekaitza gure parera heldu da, eta bete-bete harrapatu gaitu. Zapiarekin ahoa eta sudurra estaltzeko agindu dit aitak, baina alferrik izan da. Itotzen ari naizela sentitzen dut. Begiak itxi behar izan ditut harea barra-barra sartzen ari zaidalako. Ez da ia ezer ikusten ezta entzuten ere.

Bat-batean, nire dromedarioa gainerakoekin lotzen duen soka apurtu da. Noraezean doa nire animalia. Oihuka hasi naiz, biriketan daukadan aire guztiarekin. “AMAAAA, AITAAAA, LAGUNTZAAAA!”. Ez didate entzuten, ordea, eta karabanaren ingerada desagertzen ikusi dut urrutian...

*Aiala Garabietaren ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

Aiala Garabieta Oribe idazlearen
“NOMADA” kontakizuna
BIZKAIDATZ TXIKIA IX. 2022-2023
Haur eta Gazteen Literatur Sariaren oinarriak

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultur eta Kirol Sailak, Bizkaiko Foru Liburutegiaren bitartez, BizkaIdatz Txikia haur eta gazteen literatur sariaren bidez, literatur sorkuntza bultzatu eta sustatu nahi du gure lurraldeko eskola-umeen artean.

PARTE-HARTZAILEAK:

Bizkaiko udalerriren batean, edozeinetan, kokatutako ikastetxeren batean ikasten ari diren 16 urte beteta dituzten arteko haur eta gazteek har dezakete parte lehiaketa honetan; horretarako, jatorrizko eta banakako lanak aurkeztu beharko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, honako lau kategoria hauetako batean:

HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (I. taldea).

HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasturteetako ikasleak (II. taldea).

GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. ikasturteetako ikasleak (III. taldea).

GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (IV. taldea).

Eskatutako betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egiaztatu behar dira

Ezin izango dira aurkeztu aurtengo BizkaIdatz Txikia 2022-2023 IX. Literatur lehiaketara honen aurre-aurreko edizioan epaimahaiak haur edo gazteen kategorietako batean, edozeinetan, gaztelaniazko zein euskarazko modalitatean saritutako haur eta gazteak.

Lehiaketan parte hartzean lehiaketaren oinarriak oso-osorik onartzen dira.

KONTAKIZUNEN EZAUGARRIAK:

1) Sari honetan parte hartu nahi duten haurrek eta gazteek gaur egungo idazle batek proposatutako bi hastapenetako bataren bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira, batak gaztelaniaz eta besteak euskaraz; beraz, hasiera horretara, haren pertsonaietara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak.

Euskarazko modalitatean, Aiala Garabieta Oribe idazlearen “NOMADA” izeneko kontakizunaren hasiera jarraitu beharko da.

2) Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

3) Kontakizunen luzera gutxienez 4 orrialdekoa eta gehienez ere 5 orrialdekoa da. Eskuz idatzita egon beharko dira, letra argiarekin, edo ordenagailuz idatzita, “Times” edo “Arial” letra-tipoarekin, 12ko tamainarekin eta lerroarte bikoitzarekin, DIN A4 tamainako orrietan.

Kontakizunei izenburua jarri beharko zaie, baina ez dira sinatuko. Egilea identifikatu gabe aurkeztu beharko dira.

AURKEZTEKO LEKUA:

Eskabideak eskuz aurkeztu ahal izango dira honako bide hauetakoren bat erabiliz:

-Erregistro eta Herritarrenganako Laguntza bideratzeko Bulegoan, Bizkaiko Foru Liburutegiko kristalezko eraikinaren beheko soilaruan dagoena, Diputazio kaleko 7 zk., 48008 Bilbon. Aurrez aurreko arreta aurretiazko hitzorduarekin ematen da. Hitzordua eskatzeko, 94 406 8000 telefonora dei daiteke edo hurrengo webgunearen bitartez, herritarrentzako-arreta atalean <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

-Edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako edozein bide erabilia (Erregistro publikoak, Posta zerbitzua, etab.).

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkezteko: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak eta kontakizunak aurkezteko epea 2022ko urriaren 25etik 2023ko otsailaren 10era bitartekoa izango da, biak barne.

AURKEZTEKO ERA:

Aurrez aurre edo postaz aurkeztutako eskabideak foru agindu honen eredu ofizialean aurkeztu behar dira (I. formularioa). Formulario hori hurrengo webgunean dago eskuragarri:

<https://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

Aurrez aurre edo postaz aurkeztutako eskabide hauekin batera, parte-hartzaile egileak idatzitako kontakizunaren lau kopia aurkeztu beharko dira

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezten diren eskaerak egoitzan bertan betetzeko eta aurkezteko eskuragarri dauden eredu ofizialen arabera izan beharko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, kontakizunaren kopia bakarra erantsi beharko da

SARIAK:

Bi modalitateetako (euskara eta gaztelania) lau kategorietako bakoitzean, irabazleei tablet eta diploma bana emango zaie

Gainera, haur eta gazte irabazleen ikastetxeek material didaktikorako opari-txartela jasoko dute.

Saria jaso duten kontakizunak edizio berezi batean argitaratuko dira.

Irabazleei sariak banatzeko ekitaldi bat egingo da. Irabazleei horren berri emango zaie behar bezala, baita irabazleen ikastetxeei ere.

EPAIMAHAIA:

Literatura eta kultura-munduko pertsona famatuek osatutako epaimahai batek ebatziko

du zein lanek jasoko duten saria. Horretarako, aurkeztutako kontakizunak aztertuko ditu, eta ebazpen-proposamena egingo du, irizpide hauekin bat: lanak zer jarraipen eta batasun duen proposatutako kontakizunarekin (4 puntu, gehienez), literatura-kalitatea (3 puntu, gehienez), istorioaren garapenean erakutsitako sorkuntza (3 puntu, gehienez).

Edizio honetan hurrengo epaimahikideek osatuko dute epaimahaia. Gaztelaniaz: Lola López de Lacalle López, Emilia Arias Domínguez eta Andoni Abenójar Martínez de Eulate. Euskaraz: Aiala Garabieta Oribe, Idoia Barrondo Etxebeste eta Marta Goikoetxea Nagore. Ordezkoak: Juanra Madariaga Abaitua eta David Tijero Osorio.

JABETZA INTELEKTUALA:

Saria eman eta hurrengo bost urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria ordainsari osoa eta bakarra baita.

KONTUAN HARTU BEHAR DIREN BESTE ALDERDI BATZUK:

Oinarri hauei buruz sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko, Kultura Ondarearen Zerbitzuko Bizkaiko Foru Liburutegiak.

Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean: <https://www.bizkaia.eus/laguntzai-leOndarea>.

Deialdi honen oinarri arautzaileak 2022ko urriaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta <https://www.bizkaia.eus/kultura/dirulaguntzak> webgunean argitaratu dira.

www.bizkaia.eus/argitalpenak